

**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAJETAKO SAILA****4389**

AGINDUA, 2006ko uztailaren 17koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, «Kulturartekotasuna nire auzoan» goiburua duen bideoa egiteari buruzko lehen lehiaketarako deialdia egiten duena.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organiko eta funtzionalean (azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuak onartua) ezarrita dagoenez, sail horri dagokio immigrazioaren arloko EAerako estrategia propioak zehaztea.

Erronka eta egoera berriei aurre egin beharrean dabil euskal gizartea azken hamarkadotan, eta erakundeek erantzun berriak eman behar dizkiete erronka eta egoera horiei.

Urte gutxian, eguneroko gauza bilakatu da etorkinak gure herri eta hirietan ikustea. Euskal gizarteak modu solidario eta irekian erantzun dio errealitate horri, baina erakundeek eta gizarte zibilak ahalegin handia egin behar dute atzerriko etorkinak erabat gizarteratzea eta gizartea kohesionatzea lortzeko.

Kulturartekotasuna, elkarri egokitzeko prozesutzat hartuta, ezinbestekoa da integrazioa lortzeko. Prozesu horretan bermaturik geratu behar da dauden izaerek nahi bezala garatzeko askatasuna izango dutela kulturen arteko elkarreagina eta elkartrukea bideratuz. Kulturartekotasunaren helburua ez da izaera mistoak lortzea edo norbere izaerari besteenak eranstea, izaera konplexuak eta konposatuak sortzea baizik, denon onura denon nortasunaren garapen askearekin bateratzeko asmoz.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, euskal gizartea immigrazioaren fenomenoari buruz sentsibilizatzeko hartutako konpromisoari eutsiz, «Kulturartekotasuna nire auzoan» goiburua duen bideoa egiteko lehen lehiaketa antolatu du, Euskal Autonomia Erkidegoko ikas-tetxeetako gazteek beste errealitate batzuetara hurbiltzeko eta beste kultura batzuen ezagutza sustatzeko bide egokia izango delakoan.

Horri jarraiki, honako hau

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.**– «Kulturartekotasuna nire auzoan» goiburua duen bideoa egiteko lehen lehiaketarako deialdia egitea, Agindu honen I. eranskin gisa argitaraturiko oinarriek jarraiki. Oinarri horiez gain, eskaera egiten dutenek aurkeztu beharreko dokumentazioa aipa-

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA  
Y ASUNTOS SOCIALES****4389**

ORDEN de 17 de julio de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se convoca el primer concurso de realización de un vídeo con el lema «Interculturalidad en mi barrio».

El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, según se establece en la estructura orgánica y funcional del mismo aprobada por el Decreto 373/2005, de 15 de noviembre, tiene atribuida la definición de estrategias propias para la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de inmigración.

A lo largo de las últimas décadas la sociedad vasca está presentando nuevos desafíos y situaciones que requieren respuestas novedosas por parte de las instituciones.

En pocos años la presencia de población inmigrante ha pasado a ser una realidad en nuestros pueblos y ciudades. La sociedad vasca se ha mostrado solidaria y abierta ante esta realidad, pero tanto desde las instituciones como desde la sociedad civil se debe profundizar en el trabajo para conseguir una plena integración de las personas inmigrantes extranjeras y una sociedad cohesionada.

El cauce necesario para la integración debe ser la interculturalidad, entendida como proceso de adaptación mutua en el que se garantice el desarrollo libre de las diversas identidades y en el que se produzca la interacción e intercambio entre ellas. La interculturalidad no procura la construcción de identidades mixtas o la incorporación forzosa a identidades propias, sino la creación de identidades complejas y compuestas que permitan compaginar el bien común con el libre desarrollo de la personalidad de todos/as.

En este contexto, el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, revalidando el compromiso de trabajar en la sensibilización de la sociedad vasca ante el fenómeno de la inmigración, organiza el primer concurso de realización de un vídeo con el lema «Interculturalidad en mi barrio», vehículo perfecto para que los/as jóvenes de los centros escolares de la Comunidad Autónoma del País Vasco se acerquen a otras realidades y para promover el conocimiento de otras culturas.

En su virtud,

RESUELVO:

**Primero.**– Convocar el primer concurso de realización de un vídeo bajo el lema «Interculturalidad en mi barrio», de conformidad con las bases que se publican como anexo I a la presente Orden, a las que se añaden los anexos II y III como documentación a presentar por

tzen da II. eta III. eranskinetan. Azkenik, Agindu honi erantsitako IV. eranskina aurkeztea hautazkoa izango da.

Lehiaketak honako helburu hauek ditu:

Gazteak kulturartekotasunean parte hartzera bultzatzea.

Estatutik kanpokoak kulturartekotasunarekin zerikusia duten jardueren garapenean parte hartzera bultzatzea.

Gizartea gai horri buruz kontzientziatzera bultzatzea eta horretarako laguntza ematea.

Euskal kultura eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste kultura batzuk babesteko eta batera garatzeko ekimenak sustatzea.

**Bigarrena.**— Administrazio-bidea agortzen duen Agindu honen aurka berraztertze errekurtsoa jar daikioke Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari, hilabeteko epean, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren aurrean, bi hilabeteko epean, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

**Hirugarrena.**— Agindu honetan aurreikusi ez den guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

**Laugarrena.**— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko uztailaren 17a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,  
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

#### I. ERANSKINA

«KULTURARTEKOTASUNA NIRE AUZOAN»  
GOIBURUA DUEN BIDEOA EGITEKO  
LEHEN LEHIAKETARAKO DEIALDIAREN  
OINARRIAK

**Lehenengoa.**— Xedea.

quienes formalicen la solicitud, siendo optativa la presentación del anexo IV que se adjunta a la presente Orden.

Este concurso tiene por objeto:

Fomentar la participación de los/as jóvenes en la interculturalidad.

Promover la participación de los/as no nacionales en el desarrollo de actividades relacionadas con la interculturalidad.

Incentivar y apoyar la concienciación social en este tema.

Potenciar las iniciativas para la protección y el desarrollo conjunto o simultáneo de la cultura vasca y de otras presentes en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**Segundo.**— Contra la presente Orden, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de reposición ante el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de su publicación en el mismo diario oficial, conforme a lo establecido en los artículos 10.1.a y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

**Tercero.**— En lo no previsto en la presente Orden será de aplicación lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Cuarto.**— La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de julio de 2006.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,  
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

#### ANEXO I

BASES DE LA CONVOCATORIA DEL PRIMER  
CONCURSO DE REALIZACIÓN DE UN VÍDEO CON  
EL LEMA «LA INTERCULTURALIDAD  
EN MI BARRIO»

**Primera.**— Objeto.

«Kulturartekotasuna nire auzoan» goiburua duen bideoa deialdi honetan ezarritako jarraibideen arabera egiteko lehen lehiaketarako deialdia egin da.

**Bigarrena.**— Onuradunak.

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietako DBHko (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) eta DBHOko (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa) ikasle guztiak izango dute «Kulturartekotasuna nire auzoan» goiburua duen bideoa egiteko lehiaketan parte hartzeko aukera.

**Hirugarrena.**— Lanen ezaugarriak.

Lanak —gaztelaniaz edo euskaraz aurkeztu ahal izango dira— inoiz argitaratu gabeak izango dira, eta ezin izango da beste lehiaketaren batean saririk jasotako lanik aurkeztu. Era berean, kulturartekotasunarekin zerikusia duen edozein gairi buruzkoak izango dira nahitaez. Halaber, taldea egin beharko dira —betiere guxienez 3 kidez eta gehienez 5 kidez osatutako taldeetan—, irakasle batek zuzenduta eta ikastetxearen izena aipatuta. Irakasle horrek ziurtatuko du lanen jatorria.

Lanak agindu honetan definitzen den kulturartekotasun-kontzeptuari atxiki beharko zaizkio.

Bideoa DVD formatuan egingo da. Gutxienez 5 minutuko iraupena izango du, eta gehienez 15 minutukoa.

Lanak aurkezteko bi kategoria aurreikusi dira, A eta B:

A kategoria - DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat)

B kategoria - DBHO (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa) diharduten ikasleentzat)

**Laugarrena.**—Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskarekin batera —formularioa II. eranskinean dago—, egindako bideoak eta honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Lehiakide bakoitzaren NANaren fotokopia konpultsatua edo AIZren edo pasaportearen fotokopia. Adina dela-eta, lehiakideak halako dokumenturik ez badu, adingabearen legezko ordezkariarenak aurkeztuko dira, lehiaketaren eta oinarrien berri duela adierazita.

b) Lana ikuskatu duen irakaslearen NANaren fotokopia konpultsatua.

c) Ikastetxeko zuzendariaren NANaren fotokopia konpultsatua.

d) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari buruz Agindu honen osagarri egindako oinarriak biltzen dituen III. eranskinean jasotako adierazpena, honako hauek azaltzen dituen: eskatzaileei ez zaiela diru-laguntza edo laguntza publikorik jasotzeko aukera kentzeko zehapenik ezarri, ezta hartarako ezgaitzen dituen legezko debekurik ere. Adierazpenaren kopia konpultsatua izango da eta eskariari erantsiko zaio.

Se convoca el primer concurso de realización de un vídeo con el lema «Interculturalidad en mi barrio» en los términos establecidos en la presente convocatoria.

**Segunda.**— Beneficiarios.

Podrán participar en el concurso de realización de vídeo con el lema «Interculturalidad en mi barrio» todos/as los/as alumnos/as de ESO (Educación Secundaria Obligatoria) y ESPO (Educación Secundaria Postobligatoria) de todos los centros escolares de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**Tercera.**— Características de los trabajos.

Los trabajos —que podrán presentarse indistintamente en castellano o en euskera— serán inéditos, no podrán haber sido premiados anteriormente en otros concursos y versarán de modo obligado sobre cualquier aspecto relacionado con la interculturalidad. Así mismo, deberán realizarse de forma conjunta, en un grupo mínimo de 3 y un máximo de 5 componentes, bajo la dirección de un/a profesor/a, quien certificará el origen de los mismos, con indicación del centro correspondiente.

Los trabajos deberán ser conformes con el concepto de interculturalidad que se define en la presente orden.

La realización del vídeo se hará en formato DVD, siendo su duración mínima de 5 minutos y la duración máxima de 15 minutos.

Se prevén dos categorías de presentación de los trabajos, A y B:

Categoría A - ESO (para los/as alumnos/as de Educación Secundaria Obligatoria)

Categoría B - ESPO (para los/as alumnos/as de Educación Secundaria post-Obligatoria)

**Cuarta.**— Documentación a presentar.

Las solicitudes, cuyo formulario se contiene en el anexo II, deberán ser acompañadas de los vídeos realizados y de los siguientes documentos:

a) Fotocopia compulsada del DNI de cada uno/a de los/as concursantes, o fotocopia del NIE o Pasaporte. En caso de que por motivos de edad el/la concursante careciera de dichos documentos se acompañarán los del/la representante legal del/la menor conecedor/a del concurso y de las bases.

b) Fotocopia compulsada del DNI del/la profesor/a supervisor/a del trabajo.

c) Fotocopia compulsada del DNI del/la Director/a del Centro Escolar.

d) La declaración que se contiene en el anexo III de la Orden a la que estas bases complementan, referida a la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y a que las personas solicitantes no han sido sancionadas con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas ni tienen prohibición legal que les inhabilite para ello. La copia de la declaración deberá ser compulsada, adjuntándola a la solicitud.

Eskaerarekin batera, bideoa egiteko lanei buruzko iruzkin librea aurkeztu ahal izango da. Horretarako, Agindu honen osagarri egindako oinarriak biltzen dituen IV. eranskinean jasotako ereduak erabiliko da.

**Bosgarrena.**— Eskaerak eta bideoak aurkezteko epea, tokia eta modua.

Eskaerak eta bideoak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta 2006ko azaroaren 15ean amaituko da.

II. eranskinean dauden eskaerak eta bideoak Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Inmigrazio Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira — Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria/Gasteiz (Araba)—, Aginduan, III. eranskinean eta, hala bada, gorkio, IV. eranskinean ezarritako dokumentazioarekin batera. Halaber, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein baliabide erabil daiteke horretarako.

**Seigarrena.**— Sarien kudeaketa.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Inmigrazio Zuzendaritzari dagokio deialdi honen barnean egin beharreko kudeaketa-lan guztiak egitea. Hain zuzen ere, aurkeztutako eskaerak aztertu eta ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskaera guztiak izapidetzeko onartuko ditu Zuzendaritza horrek.

**Zazpigarrena.**— Sarien tipologia.

Lan batek irabaziko du ezarritako modalitate bakoitzean, eta irabazle bakoitzari honako sari hauek emango zaizkio:

Irabazten duen ikastetxearentzako saria – A kategoria:

Bideokamera digitala.

Irabazten duen taldearentzako saria – A kategoria.

DVD eramangarria taldeko kide bakoitzarentzat.

Irabazten duen ikastetxearentzako saria – B kategoria:

Bideokamera digitala.

Irabazten duen taldearentzako saria – B kategoria:

DVD eramangarria taldeko kide bakoitzarentzat.

Saririk gabe geratutako parte-hartzaileentzako saria, baldin eta bederatzigarren oinarrian aurreikusitako ekitaldian parte hartzen badute: motxila bana.

**Zortzigarrena.**— Sariak esleitzeko irizpideak eta irizpideen balioespena.

1.— Lanak esleitu eta balioesteko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Podrá acompañarse a la solicitud un libre comentario sobre la realización del vídeo, a cuyo efecto se destinará el modelo contenido en el anexo IV de la Orden a la que estas bases complementan.

**Quinta.**— Plazo y lugar o modo de presentación de las solicitudes y de los vídeos.

El plazo para presentación de solicitudes y de los vídeos será desde el día siguiente al de la publicación de esta orden en el Boletín Oficial del País Vasco hasta el 15 de noviembre de 2006 inclusive.

Las solicitudes contenidas en el anexo II y los vídeos, junto con la documentación establecida en la Orden así como los anexos III y en su caso IV deberán entregarse en la Dirección de Inmigración del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, sita en c/ Donostia-San Sebastián 1, 01010, de Vitoria-Gasteiz (Álava) o por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

**Sexta.**— Gestión de los premios.

Corresponderá a la Dirección de Inmigración del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales la realización de las tareas de gestión que conlleva la presente convocatoria. En concreto, dicha Dirección examinará y admitirá a trámite las solicitudes que cumplan los requisitos establecidos.

**Séptima.**— Tipología de premios.

Se elegirá un trabajo ganador en cada una de las modalidades establecidas, y a cada uno de ellos se le concederán los siguientes premios:

Premio para el centro escolar ganador – Categoría A:

Cámara de vídeo digital.

Premio para el equipo ganador Categoría A:

1 DVD portátil para cada uno/a de los/as componentes del grupo.

Premio para el centro escolar ganador – Categoría B.

Cámara de vídeo digital.

Premio para el equipo ganador - Categoría B:

1 DVD portátil para cada uno/a de los/as componentes del grupo.

Premio de una mochila para todos/as los/as participantes que no hubieran obtenido los premios citados con anterioridad, y acudan al acto a celebrar previsto en la Base Novena.

**Octava.**— Criterios de adjudicación y su ponderación.

1.— Los criterios de adjudicación y ponderación para los premios son los siguientes:

a) Nola dagoen egokiturik bideoa kulturartekotasunari; gehienez hogeitun puntu.

b) Lanen kalitatea, irudia, argitasuna; gehienez hamar puntu.

c) Ikuspegiaren originaltasuna; gehienez hamar puntu.

d) Genero-ikuspegia sartuta ote dagoen kontuan harturik gizon-emakumeen egoera eta behar desberdinak; gehienez hamar puntu.

Ikastetxearentzako saria – A kategoria: maila horretan puntuazio gehien lortzen duen ikastetxeari emango zaio. Ikastetxe horrek aurkeztutako lan guztien puntuazioak batuko dira.

Ikasle-taldearentzako saria – A kategoria: maila horretan puntuazio gehien lortzen duen taldeari emango zaio.

Ikastetxearentzako saria – B kategoria: maila horretan puntuazio gehien lortzen duen ikastetxeari emango zaio. Ikastetxe horrek aurkeztutako lan guztien puntuazioak batuko dira.

Ikasle-taldearentzako saria – B kategoria: maila horretan puntuazio gehien lortzen duen taldeari emango zaio.

*Bederatzigarrena.*– Sarien esleipena.

2006ko abenduaren 18an Gasteizko Artium Museoan 18:30ean egingo den ekitaldi publikoan banatuko dira sariak, honako kide hauek izango dituen epaimahaiak proposaturik esleituta:

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkari bat.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkari bat.

EHIGE erakundearen ordezkari bat.

Komunikazioarekin, zinemarekin edo antzerkiarekin zerikusia duen kide bat.

Eusko Jaurlaritzaren Inmigrazio Zuzendaritzako teknikari bat, epaimahaiko idazkari gisa arituko dena.

Epaimahaiak sariak ebazteko proposamena helaraziko dio Inmigrazio zuzendariari, zortzigarren oinarrian aipatutako esleipen-irizpideei jarraituz. Proposamen horretan adieraziko da zergatik eman diren sariak.

Epaimahaiaren proposamena aztertuta, Inmigrazio zuzendariak ebazpena emango du. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Agindu hau indarrean jarri eta handik lau hilabetera gehienez ere. Epe hori iragan eta sariari buruzko ebazpenik argitaratu ez bada, aurkezturiko izangaiak onartu ez direla ulertuko da.

Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz gero, ez da banan-banan jakinarazpenik egin behar, eta ondorio berberak izango ditu, ha-

a) Adecuación del video al tema sobre la interculturalidad, hasta veinte puntos.

b) Nivel de calidad de los trabajos, imagen, claridad, hasta diez puntos.

c) Originalidad del enfoque del tema, hasta diez puntos.

d) Inclusión de la perspectiva de género teniendo en cuenta las diferentes situaciones, condiciones y necesidades de mujeres y hombres. Hasta diez puntos.

Obtendrá el premio el Centro Escolar ganador – Categoría A: aquel que haya obtenido mayor puntuación en dicha categoría, sumando las puntuaciones de todos los trabajos presentados por dicho Centro Escolar.

Obtendrá el premio el equipo de alumnos/as de categoría - A: aquel que haya obtenido mayor puntuación en dicha categoría.

Obtendrá el premio el Centro Escolar ganador – Categoría B Aquel que haya obtenido mayor puntuación en dicha categoría, sumando las puntuaciones de todos los trabajos presentados por dicho Centro Escolar.

Obtendrá el premio el equipo de alumnos/as de Categoría – B: aquel que haya obtenido mayor puntuación en dicha categoría.

*Novena.*– Adjudicación de los premios.

La concesión de los premios, que se materializará en acto público a celebrar el 18 de diciembre de 2006 en el Museo Artium de Vitoria-Gasteiz, a las 18:30 horas, se efectuará a propuesta de un jurado constituido por las personas que a continuación se relacionan:

Un /a representante del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

Un/a representante del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Un/a representante de EHIGE.

Una persona relacionada con el mundo de la comunicación, cine o teatro.

Una Técnica de la Dirección de Inmigración del Gobierno Vasco, que actuará como Secretaria del Jurado.

El jurado elevará propuesta de resolución de los premios en base a los criterios de adjudicación señalados en la Base octava al Ilmo. Sr. Director de Inmigración, en la que expresará las razones que justifican la concesión.

El Ilmo. Sr. Director de Inmigración, vista la propuesta del jurado, dictará la resolución correspondiente, que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco en el plazo máximo de cuatro meses desde la entrada en vigor de la presente Orden. Transcurrido dicho plazo sin haberse efectuado la indicada publicación se entenderán desestimadas las candidaturas presentadas.

La publicación de la resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, sustituirá a la notificación individual, surtiendo los mismos efectos. Todo ello en conformidad con

la baitio Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.6 artikulua.

Ebazpen honekin ez da administrazio-bidea amaitu eta ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Gizarte Gaietako sailburuordeari; horretarako, hilabeteko epea egongo da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114 eta 115. artikuluekin bat etorritik.

Saritu gabeko lanen jatorrizkoak dagozkien ikasleei itzuliko zaizkie, betiere haiek eskatuta.

**Hamargarrena.**– Ustiatzeko eskubidea.

Sarituriko obrak ustiatzeko eskubideak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrari lagako zaizkio, doan, gehienez ere 3 urterako.

Ustiatzeko eskubide horien bidez, obrak kopian, banatu, argitaratu, eraldatu eta moldatu ahal izango dira, kulturarteko bizikidetza sustatzeko, bultzatzeko eta horri buruz sentsibilizatzeko kanpainetan erabiltzearen.

**Hamaikagarrena.**– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea betetzea.

Lehiaketa honetan parte hartzen dutenek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. artikuluan bilduriko printzipio orokorrak bete beharko dituzte nahitaez, sortutako euskarrietan genero-ikuspegia kontuan hartuta eta hizkuntza ez-sexista erabiliz.

el artículo 59.6 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Contra la citada resolución, que no agota la vía administrativa, podrá el interesado interponer recurso de alzada, ante el Viceconsejero de Asuntos Sociales, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo previsto en los artículos 114 y 115 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Los originales de los trabajos no premiados serán devueltos a los/as alumnos/as participantes que lo soliciten.

**Décima.**– Derechos de explotación.

Los derechos de explotación de las obras premiadas se cederán a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco de forma gratuita por un plazo máximo de 3 años.

Dichos derechos de explotación se refieren a su reproducción, distribución, comunicación pública, transformación y adecuación para su utilización en campañas de promoción, sensibilización y estímulo de la convivencia intercultural.

**Undécima.**– Cumplimiento de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Las personas beneficiarias de este concurso quedan obligadas al cumplimiento de los principios generales del artículo 3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, a la adecuación de los proyectos a la perspectiva de género y al uso no sexista del lenguaje en los soportes producidos.

## II. ERASKINA

## FORMULARIOA

Oharra: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Inmigrazio Zuzendaritzak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak —formulario honen bidez lorturiko datu pertsonalak, alegia— fitxategi automatizatu bat lantzeko gaineratuko direla, eta fitxategi hori Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedaturikoaren mende egongo dela.

Fitxategi horretan bilduriko datuak ezin izango zaizkie hirugarrenei laga, eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak sustaturiko lehiaketa kudeatzeko baino ezin izango dira erabili.

Nahi izanez gero, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko Legean aurreikusitako eskubideak balia ditzakezu, Inmigrazio Zuzendaritzari (Donostia/San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria/Gasteiz) idazki bat bidalita, harena baita fitxategiaren ardura.

«KULTURARTEKOTASUNA NIRE AUZOAN» GOIBURUA DUEN BIDEOA EGITEKO LEHEN LEHIAKETA

INMIGRAZIO ZUZENDARITZA  
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

## LANA IKUSKATUKO DUEN IRAKASLEA:

Ikastetxea:

Maila:

Ikastetxearen helbidea:

Herria:

Probintzia:

Telefonoa:

Eskukoa:

e-maila:

## Lehiakideen izen-abizenak:

1.-

2.-

3.-

4.-

5.-

## Lehiaketa-mota:

A B 

## LANAREN IZENBURUA

Lekua eta eguna:

Eskatzailearen sinadura

Lana ikuskatu duen irakaslearen sinadura

Ikastetxeko zuzendariaren sinadura

Adingabearen legezko ordezkariaren sinadura (lehiaketa eta oinarriak ezagutzen ditu)

III. ERANSINA

NAN/NIE/Pasaporte:

jaunak/andreak

. Erakundearen  
gisa, honako hau

ADIERAZTEN DU Inmigrazio Zuzendaritzaren aurrean eta diru-laguntza eskaera honi dagokionez:

Diru-laguntza eskatu duen pertsona edo erakundea ez da sexu-diskriminazioagatiko zigor administratiborik edo penalik betetzen ari, eta ez dago zigortuta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

Diru-laguntza eskatu duen pertsonak edo erakundeak ez du diru-laguntza edo laguntza publikorik jasotzeko aukera galtzeko zigorrik eta ez da horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik betetzen ari.

\_\_\_\_\_, 2006ko \_\_\_\_\_aren \_\_a

ESKATZAILEA

IV. ERANSKINA

BIDEOA EGITEKO LANEI BURUZKO IRUZKIN LIBREA

## ANEXO II

## FORMULARIO

*Nota: la Dirección de Inmigración del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco le informa que sus datos personales obtenidos mediante cumplimentación de este formulario van a ser incorporados para el tratamiento de un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal.*

*El uso de dicho fichero, cuyos datos no serán objeto de cesión a terceros, se circunscribe al uso exclusivo de la gestión del concurso promovido por la Dirección de Inmigración del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.*

*Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Inmigración responsable de dicho fichero, sita en C/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.*

PRIMER CONCURSO DE REALIZACIÓN DE VÍDEO CON EL LEMA «LA INTERCULTURALIDAD EN MI BARRIO»

DIRECCIÓN DE INMIGRACIÓN  
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

## PROFESOR/A SUPERVISOR/A DEL TRABAJO:

*Centro Escolar:*

*Curso:*

*Domicilio del Centro:*

*Localidad:*

*Provincia:*

*Teléfono:*

*Móvil:*

*e-mail:*

*Nombre y apellidos de los/as concursantes:*

1.-

2.-

3.-

4.-

5.-

*Modalidad concurso:*

A

B

## TÍTULO DEL TRABAJO

*Lugar y fecha:*

*Firma del/la solicitante*

*Firma del/la profesor/a supervisor/a*

*Firma del/la directora/a del Centro Escolar*

*Firma del/la representante legal  
del/la menor conocedor/a del concurso y de las bases*

ANEXO III

*D./D.ª:*

*DNI/NIE/Pasaporte:*

*En su calidad de*

*De la Entidad*

*DECLARA, al efecto de esta solicitud de subvención ante la Dirección de Inmigración,*

*Que la persona o entidad solicitante no está cumpliendo sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo ni está sancionada con esta prohibición en virtud de la Ley 4/2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

*Que la persona o la entidad solicitante no se encuentra sancionada con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halla incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello.*

*En \_\_\_\_\_, a \_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2006.*

*EL/LA SOLICITANTE*

ANEXO IV

*LIBRE COMENTARIO SOBRE LA REALIZACIÓN DEL VÍDEO*